

2003-01-19
kioskoa**Iban Arregi****Kontrarioak**

«Savaterrek [Espainiako] Gobernua kritikatu du, zigor erreformarekin adostasunik ez bilatzeagatik», zioen atzo **El Diario Vasco**-k titulu batean. Espainiako Gobernuari —PPri, azken batean— alde denetatik ari zaizkio kontrarioak ateratzen, baita etxetik bertatik ere. Sindikatuen greba, ekonomia eta inflazioa, *Prestige*, Iraken kontrako erasoa, orain Zigor Kodea... Aldapa gora dabil PP, oztopoa oztopoaren atzetik, eta hori nabari da haren *aldeko* egunkarietan ere. *El Diario Vasco*-n bertan eta *El Correo*-n, esaterako, «*La crisis del PP en Galicia*» tituluko editoriala egin zuten, eta azpian Michavilla Justizia ministroari eskaini zion Zuletek eguneroko marrazkia, Zigor Kodearekin dituen arazoak erakutsi nahian edo. Bezperan, Correo Taldeko bi egunkarien marrazkilari horrek Fraga utzi zuen lotsagarri. **Abc**-n ere PPren kontrako *mezu* ugari nabarmendu dira azkenaldian, dela testuetan, dela marrazkietan... Eta *El Mundo*-n ere bai, batik bat Iraken kontrako erasoa eta *Prestige* gaitzat hartuta. Atzo bertan, esaterako, etxean eginiko inkesta batekin zabaldu zuen egunkaria *El Mundo*-k, eta honela hasi zuen editoriala: «Espainiako Gobernuaren zenbait lege erreforma eta jokaera gogor eskuine-rantz eginiko keinu moduan ulertu ditu iritzi publikoak...». Eta gero, euskal gatazka ere hor dago. Gai horretan, ia espainiazale denak berarekin izan ditu Espainiako Gobernuak, baina... Atzo, esaterako, **La Vanguardia** egunkari katalanak —eta ez gara ari *Deia* edota *Gara* katalan batez— Euskal Herriko PPren eta Mayor Orejaren kontrako oso-oso artikulua gogorra argitaratu zuen, Gregorio Morane sinatutakoa: «Mayor Oreja eta haren politika porrota izan dira (...). PPren Euskal Herriko zabaltze prozesua bukatu da (...)». Kontrarioak, baita etxean ere, azkenaldian PPK.

Egunkaria 3.762. zenbakia**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Begoña Zubelzu**Publizitatea:** Igor Sota**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**id** Batzorde Parekidea. 72564 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**balkoia****Martxelo Otamendi****Bulegoen miaketan****KONPARAZIOA****Zein bulegotan dago informazio kezkarriagoa, Bushenean edo Husseinenean?****EUROPA/AEB-AK****Iraken aurkako gerra horretan Europak bere autonomia eta lidergoa dauzka jokoan**

Beste herri bateko presidentearen bulegoan miaketa lanak egitera sartzea bezalako umilaziorik ez dago diplomazioaren munduan. Horixe gertatu da asteon, NBEko begiraleak Irakeko presidente Husseinen egoitzan sartu direnean. Herria bera goitik behera miatzea ere bada nahikoa umilazioa; begirale talde horren azken asmoa zein den jakitea zaila delako eta mesfidati izateko nahiko aurrekari badagoelako nazioarteko diplomazioaren literatura politikoan. Zer berme dago esateko begirale horiek, edo horietako batzuk, ez direla ari AEBentzat espioitza lanean?

«Gure defentsa sistema guztiak ari gatzazkie erakusten begiraleei, gerra saihestu nahi dugulako», esan zuen, arrazoi guztiarekin, duela gutxi elkarriazketa batean Irakeko lehen ministro Tarek Azizek.

Inork imajinatzen al ditu begirale horiek berek AEBetako presidente Bushen bulegoan sartzen eta hura goitik behera arakatzeko? Ez da izango bulego horretan suntsipen zabaleko armen gaineko informazio berritzailea gordeko ez delako.

Zein bulegotan daude mundua arriskuan jar dezaketen arma eta plan sekretu gehiago, *bulego obalean* edo Husseinen bulegoan?

Bushen bulegoa bolborategi bat da, politika eta arma bolborategia. Eta bulego horren zati politikoa zati armamentistikoa baino askoz ere interesga-

rriagoa da, bigarrena lehenaren ondorio baita. Baina inor ez da ausartzen bulego horren miaketa agintzera.

Aterki diplomatikoaren bila

AEBek erabakita daukate Iraken aurka gerra egitea, eta Bush aitak lortu ez zuena semeak lortu nahi du. Washingtonen badaki gerra horretarako ezinbestekoa duela mundu erdiko aterki diplomatikoa, eta aterki horrek zulorik handienak Irak inguruko herri arabiarretan eduki ditzakeela.

Saudi Arabia da giltza nagusietako baten jabea afera horretan, baina errezeloz begiratzen dio herri horri gero eta gehiago AEBetako diplomazioak. Urte askotan Washingtonen aliatuak sendoenetako bat izan da inguru ho-

rretan; baina, era berean, islamismoaren korronterik gogorrenaren zabal-kundea, wahabismoa, mundu osoan finantziatzen ari dena ere bada, eta horrek mesfidantza sortzen du estatubatuarren artean, saudiarabiarrak gaurko ogia eta biharko gosea direlakoan.

Europaren egitekoa

Europaren etorkizuna eztabaidatzen ari diren egun hauetan paradoxa da nazioarteko gatazka hauetan Europak duen egitekoa. Britainia Handia Bushen ondoan dago lehen egunetik, eta Espainia, Aznarren eskutik, Bushen ideien bultzagile nagusi bihurtu da. Frantzia eta Alemania ezezkotan daude gerra hasi aurreko aro honetan, baina ikusi egin beharko da zein independentzia gaitasuna daukaten Washingtonen presioei eusteko.

Iraken aurkako gerra itxuraz saihes-tezin honetan, Europak bere autonomia eta nazioarteko lidergoa dauzka jokoan. AEBen atzetik itsuki segitzen badu, are zailago edukiko du hurrengo krisietan sinesgarritasunez hitz egitea.

Aznarren *bushitis sendaezinaren* atzean, kontserbadore izaeraz gain, etekin politikoa ateratzeko asmoa ere egon liteke. Zenbat eta gehiago lagundu Washingtoni, orduan eta *aznarzale-agoa* izango da Etxe Zuria Aznarri AEBetako *euskal estatuetan* sortzen ari zaizkion arazo diplomatikoen jorraketan. Boiseko Memoriala gogoan.

martintxo